

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz emango den bajaren jakinarazpena

Honen bidez, Eduardo Beraza Ibarrolari jakinarazten zaio alkateak hasiera eman diola udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emateko espedienteari, alkatearen 2016ko uztailaren 12ko 244/16 Dekretuaren bidez.

Ikusirik I. F. Bk Luiaondoko Padura kaleko 9-1A helbideko etxebizitzaren jabe gisa aurkeztutako idazkia, 2016ko uztailaren 01ekoa, adieraziz Eduardo Beraza Ibarrola jauna biztanleen erroldan arauz kanpo erroldatuta dagoela, ez delako bizitoki horretan egiaz bizi, eta, hartara, ez dituela betetzen Biztanleriari eta Lurralde Mugapeari buruzko Erregelamenduaren 54. eta 68. artikuluetan ezarritako baldintzak.

Kontuan hartuz erregelamendu horren 75. artikuluan xedatutakoa, eta orobat 1997ko apirilaren 1eko ebazpena, zeinaren bidez jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udalei udal errolda kudeatu eta berrikusteari buruz, eta, zehazki, erroldan izena bidegabeki emanda izateagatik baja emateari buruz, eta kontuan hartuz, horrez gain, aplikatzekoa den legedia orokorra.

Alkate lehendakari honek

ebazten du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetu dadin onartzea eta, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik, Eduardo Beraza Ibarrola jaunari Aiarako udalaren biztanle erroldatik baja emateko espedientea ofizioz irekitzea.

Bigarrena. Udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean jakinaraztea interesdunari ebazpen hau, hamabost egun igaro baino lehen egoki deritzen alegazioak, agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo errolda egoera erregularizatzeko, eta horretarako, etxebizitzaz aldatu dela edo egun duen etxebizitza eta zein udalerritan bizi den jakinarazi beharko dio udal honi.

Arespalditza, 2016ko ekainaren 19a

Alkate-lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA